

opusdei.org

36 urte, auzo laborista batean hautatua, Kelly ministroak harrituta uzten du jendea Opus Deikoa delako

Ruth Kelly-ren deklarazioak
BBCri, bere fedea eta
erantzukizun politikoaren
arteko harremanei buruz

2005 Ots 15

Joan den urtarrilaren 23an Kellyri
elkarrizketa bat egin zioten BBC

telebistako lehen kanalean, goizeko programa batean, eta bere fedea eta erantzukizun politikoaren arteko harremanei buruz deklarazio batzuk egin zituen:

“Nik, beste edozein politikok bezala, badut pribatutasun maila bat nire bizitza pribatuan. Gogo bizitza pribatua daukat eta horri buruz erabat egiazalea naiz. Jendeak badaki katolikoa naizela eta benetan gainera.

Opus Deiren laguntza daukat gogo bizitzan, eta hori ondo dagoela ustedut. Espiritu arazo pribatuak dira. Politikoei bizitza pribatua izateko eskubidea daukate. Garbi daukat, gobernu honen kide naizenez, gobernuaren politikari dagozkion erantzukizun kolektiboak ditudala, beraz, hezkuntzaren Exekutibo erantzule kide bezala badudala ere erantzukizuna osasuna departamentuan, nazioarteko

garapenaren laguntzakoan etab...
aurrera eramaten diren politika
bideetan.

Politika hauek, hain zuzen ere, ez ditu
gobernu laboristak bakarrik aurrera
eramaten, baizik eta Parlamentuak
onartzen ditu. Nahiz eta kontzientzia
gaiak badiren, eta gai horietan,
noski, nire ikuspegia ohi den bezala
azalduko dudan –horietako gai
gehienak boto librekoak baitira–
governuko kide naizenez politika
horien erantzukizuna daukat eta
nire departamentuan horiek aurrera
eramatearena ere bai.”

Orain bi urte arte, Opus Deiren izena
–500 kide ozta-ozta Erresuma
Batuan– nekez ezagutzen zuen
britainiar arruntak. Gaur
ezagunagoa da, nahiz eta oker, El
código da Vinci dela eta. Kellyren
kasua deigarria gertatu da
Atlantikoaren beste aldean eta
horrela idazten zuen George Weigel

analista katolikoak www.the-tidings.com-en:

“Mitoak hausten dituen emakume bat izatea izan da benetan Kellyrekin “Buttiglione tratamendua” erabiltzeko arrazoia. Egunez egun, bere ageriko bizitzak faltsukeria hau ezeztatzen du: XXI. mendeko benetako ageriko katolikotasuna faxismo hasiberri bat dela. Izan ere, nork leporatu diezaioke modu sinesgarrian arrakasta handiko sindikalista bikain honi horietako kontserbadore izugarri bat izatea?

Ruth Kelly 1968an jaio zen Iparraldeko Irlandan familia katoliko baten barruan. Londresera aldatu ziren indarkeriatik ihes eginez. Oxford-en eta ekonomiako London School-en graduatu zen. Urte batzutan zehar ekonomiaz idazteko erantzukizuna izan zuen The Guardian-en. 1997an, ezkondu eta urte bete ondoren, Erresuma Batuan

kontserbadoreek toriek agintetik baztertu zituztenean, haren argazkiak parlamentario laborista berri bezala Bolton Westen deigarriak gertatu ziren: 29 urteko emakume haurdun gazte bat kanpaina egiten eta Parlamentura iristen. 2001ean Ekonomiako Ministerioaren idazkari izendatua izan zen. Eta joan den abenduan Hezkuntzarako Ministro. Horrela Kelly anderea britainiar historiako ministroetan gazteena bihurtu zen.

Izendapenak ez du harrera ona izan zirkulu feministetan, emakume ezkondua baita (behin bakarrik eta pozik), eta lau seme-alaba baititu, bizitza eta familiaren babesle sendo izateaz gain.

Hezkuntzako Ministroa denez, Kellyren eskuetan mila milioi libra daude Unibertsitate ikerketa proiektuetan banatzeko. Inork ez du zalantzan jartzen dirua ongi

erabiltzen dakiela, Ekonomiatik pasa ondoren, baina zenbat diru joango da zelula ama lortzeko giza enbrioia desegiten dituzten ikerketetara?

Robin Lovell-Badge, Ikerkuntza Medikoko Institutu Nazionalen garapen genetikoaren zuzendaria, The Times-en Hezkuntza eranskinera jo zuen kexaka eta Estatu Batuekin erkatzen zuen egoera, non Bush presidenteak, urteak direla, enbrioia zelula amen ikerketaren finantzaketa federala blokeatu baitzuen.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/36-urte-lau-seme-alaba-
kazetaritza-eta-ekonomia-ikasketak-
auzo-laborista-batean-hautatua-kelly-
ministroak-harrituta-uzten-du-jendea-
opus-deikoa-delako/](https://opusdei.org/eu-es/article/36-urte-lau-seme-alaba-kazetaritza-eta-ekonomia-ikasketak-auzo-laborista-batean-hautatua-kelly-ministroak-harrituta-uzten-du-jendea-opus-deikoa-delako/) (2026 Ots 22)